

Jaietan urratutako eskubideak

Euskal Herriko toki askotan ohikoa izan ohi da animaliak eta gizakiak lotzen dituzten ekitaldi tradizionalak ikustea, batez ere jaiegunetan. Azkenaldian, baina, zenbait herritan ekitaldi horiek arindu egin dituzte, eta bizirik dauden animaliak erabiltzeari utzi diote. Halere, era batera ado bestera, animaliak oso present egon ohi dira jaietako egitarauetan.

5 Euskal Herriko jairik ospetsu eta nazioarteko kutsu gehien duena ikusi besterik ez dago. Iruñeko sanferminek animaliekin eginiko jokoetan dute erakargarritasunik eta oihartzunik handiena. Beste herriko jai askotan ere, tradizioaren aitzakia baliatuz ikuskizun ugari egiten dituzte animaliekin. Zezenketak ohikoenak badira ere, entzierro eta zezen plazetatik harago ere animalia ugari erabiltzen dituzte dibertsiorako: oilaskoei lepoa moztea, antzara

10 jokoak, aharri jokoak, asto lasterketak, idi demak, zirkuak...

Euskal Herrian, animalien sufrimendua legez galerazita dago. Ipar Euskal Herrian, Landa Kodearen L-114 artikulua babesten ditu animalien eskubideak. Nafarroan, berriz, 7/1994 foru legeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoan, 6/1993 legeak. Halere, lege horiek praktikan leku oso gutxitan betetzen dira. Hortaz kexu da Kepa Tamames Animaliei Tratu

15 Etikoa Ematearen Aldeko Elkarteko (ATEA) bozeramailea. "Ez dira lege txarrak; arazoa da ez direla betetzen, arrazoi sinple batengatik: ez dute legea betearazi nahi". [...]

Urte andana igaro ditu Tamamesek animalien eskubideen alde lanean [...] eta itxaropentsu agertu da etorkizunari buruz. Izan ere, urte horietan guztietan gauzak asko aldatu direla uste du, gizartean kontu horiekiko sentsibilizazioa piztu delakoan baitago.

20 "Agian, sufritzen duten animalien kopurua ez da gutxitu, baina gutxienez eztabaida gaineratu da; jendeak egunero deitzen digu kontu hauetaz galdezka". Horren erakusgarri da hainbat udal erakundek jarrera aldatu izana. Donostian, esaterako, udalak ez du kontraturik beritu zezen etxeekin, eta, beraz, ez dira zezenketa gehiago izango Aste Nagusian. Beste udalerri batzuetan ohiturekin jarraitu badute ere, horiek zertxobait aldatu

25 dituzte animalien sufrikarioa saihestearren.

Lekeition eta Markinan (Bizkaia), adibidez, antzara hilak erabiltzen dituzte antzara jokoetan. Lekeition, 1986. urtean utzi zioten bizirik zeuden antzarak erabiltzeari, udalaren erabakiz. Erabakiak polemika handia sortu zuela gogorarazi du Tamamesek. "Baikorra da antzara hilak erabiltzea, baina, gure ustez, urrats gehiago egin behar dira". Animaliak

30 guztiz alde batera uzteko eskaera egiten du ATEAk, antzara artifizialak erabiliz horien orde. Udalak azaldu duenez, herriak hausnartu eta hartu behar lukeen erabakia da.

Mutrikun ere (Gipuzkoa), ohiturak moldatu, eta, benetako ahateak erabili orde, iaztik gomazkoak erabiltzen dituzte. Aurreko urteetan, ahateak kaian askatzen zituzten, ondoren harrapatzeko. Hegoetan ebakiak egiten zizkieten, hegan eginez ihes egin ez zezaten.

35 "Herritar batzuek eskatuta aldatu zen ekitaldia", azaldu du Iratxe Gimenez Mutrikuko kultur teknikariak. Herritar batzuk erabakiaren aurka agertu baziren ere, oro har erabakiak harrera ona izan duela dio Gimenezek. "Jendeari animaliak bakean uzteko aukera ematen badiozu, eta erakutsiz gero pertsonen gozamenerako animaliak ez duela sufritu behar, urte pare batean ahaztu dute lehenago animaliak erabiltzen zirela", dio Tamamesek.

BERRIA, Adrian Garcia, 19-09-2012